

GOIERRIKO EUSKARAREN BILAKAERA XX. MENDEAREN ERDITIK GAUR ARTE

- GRADU AMAIERAKO LANA -

EGILEA: Goikoetxea Urdangarin, Larraitz
lgoikoetxea005@ikasle.ehu.eus

GRADUA: Euskal Ikasketetako Gradua

ZUZENDARIA: Zuazo Zelaieta, Koldo

2. deialdia 2015/2016

❖ LABURPENAK

➤ **Laburpena**

Goierri oso gune euskalduntzat eta euskararen arnagunetzat hartu izan da betidanik. Uste hau ez da guztiz okerra 50. hamarkada baino lehenagoko Goierri buruz ari bagara, baina urte haietatik gaur arte bertan izandako hainbat eragilek nabarmen aldarazi dute bertako egoera. Hasieran, immigrazioek eta diktaduraren eskutik hizkuntza gutxituentzako babesik ezak, asko erdaldundu zuten eskualdea. Honen aurrean, 60ko hamarkadan euskaldunek izandako erreakzioak, ordea, Goierriko euskarari bizirik jarraitzeko aukera eskaini zion eta gaur arte etengabekoa izan da bertan euskaraz ikasi dutenen kopurua. Dena den, ezagutzaren gorakadak ez du erabilera berarekin ekarri eta, badirudi, Goierriko euskarak nahiz euskaldunek aurreko egoera hark utzitako aztarnak ezabatu ezinik jarraitzen dutela oraindik.

➤ **Síntesis**

Históricamente, el Goierri ha sido una de las zonas con mayor número de vascoparlantes. Sin embargo, a partir de los años 50, la inmigración laboral y la prohibición de las lenguas minoritarias durante la dictadura, provocaron un cambio notable de esta situación. No obstante, en los 60, los goierritarras reaccionaron para darle una nueva oportunidad a su lengua, creando un movimiento de defensa del euskera que ha provocado un aumento ininterrumpido de conocedores de la lengua. A pesar de ello, dicho aumento no ha ido a la par con el de su uso. Posiblemente, porque los goierritarras y su euskera siguen siendo herederos de su pasado.

➤ **Summary**

Goierri has always been considered as a very strong basque-speaking area, becoming extremely important for the language. However, because of some factors that appeared from the 50th decade, this situation has been dramatically changed. Initially, Spanish migration and the lack of interest and protection for small languages caused the Hispanicisation of Goierri. Nevertheless, its inhabitants react in the 60th decade and gave to the region's language the opportunity to keep alive. Since then, lots of people have studied or are studying Basque, but actually people from Goierri don't use the language as much as it was used before the 50th decade.

❖ AURKIBIDEA

1. SARRERA	
1.1. Justifikazioa	1
1.2. Gaiaren garrantzia	2
1.3. Arloaren egoera	2
2. HELBURUAK	2
3. METODOA	3
4. GARAPENA	
4.1. Goierri	4
4.2. 50. hamarkadako egoera linguistikoa	5
4.2.1. Egoera honetan eragin zuten indarrak	8
4.2.1.1. <i>Industrializazioa</i>	8
4.2.1.2. <i>Politika</i>	10
4.2.1.3. <i>Eskola</i>	12
4.2.2. Indar hauek gizartean izandako ondorioak	15
4.2.2.1. <i>Euskaldunen autoestimuan zauriak</i>	15
4.2.2.2. <i>Hizkuntza transmisioaren etena</i>	17
4.3. 60ko hamarkadako euskaldunen erreakzioa	18
4.3.1. Ikastolen sorrera	19
4.3.2. Alfabetatze ikastaroak eta hiztunen kontzientziazioa	23
4.4. Azken urteetako egoera	25
5. ONDORIOAK.....	27
6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	28
7. ERANSKINAK	29

1. SARRERA

1.1. Justifikazioa

Ahozko transmisioak izugarritzko garrantzia du herri eta zibilizazio guztietan, baina, bereziki, gureak bezala oso berandura arte hizkuntza idatzirik izan ez duten herrietan, hauetan ahozkotetasuna izan baita mende luzez hizkuntzaren eta ondare kulturalaren transmisioa belaunaldiz belaunaldi egiteko oinarri bakarra.

Hizkuntzak egiten gaitu herri, eta komunikazio tresna bat eskaintzeaz gain, sentimenduak transmititzeko bidea eman eta nortasun baten jabe ere egiten gaitu. Hizkuntzak herria behar du bizi ahal izateko eta herriak hizkuntza. Ondotxo konturatu zen horretaz Xalbador bertsolari urepeldarra:

Anai-arrebak, entzun ene aho-otsa:
izaite bat ez daike hezur hutsez osa;
herria da gorputza, hizkuntza bihotza;
bertzetik berextean bitarik bakotxa,
izaite horrendako segurra hil hotza.

Xalbador: *Herria eta hizkuntza*

(Mikel Laboak musikatua)

Hizkuntza txikiek gordeleku edo arnaguneak behar izaten dituzte euren biziraupena ziurtatzeko eta euskarak, beste batzuen artean, Gipuzkoako bihotzean kokatutako Goierri eskualdea izan du eginkizun horretan ardatz indartsuenetako bat. Hala uste izan da, behintzat, urte luzez. Benetan hala izendatu al daiteke, ordea, azken datuen arabera euskararen ezagutza %68,25koa (Udalbiltza 2009) izan eta kale-erabilera %34 (Soziolinguistika klusterra 2001) inguruan duen eskualde bat? Litekeena da azken urteetan egoera aldatu eta, dena delako arrazoiengatik erdaldundu den eskualde batek, arnagune izaera idiliko hori mantendu izana.

Ikus dezagun zein bilakaera eta eragile izan dituen azken urteetan Goierriko euskarak gaur egun dagoen egoerara iritsi arte.

1.2. Gaiaren garrantzia

Nire lanean sakontzen hasi aurretik, honen norabidea zein izango den zehaztu nahiko nuke. Lana soziolinguistikoa baino gehiago hizkuntzaren soziologiari erreparatzen diona izango da. Hau da, gramatika, lexikoa, morfologia eta sintaxia moduko hizkuntzaren barruko alderdiak eta hauek denboran zehar izan dituzten aldaketak alde batera utziko dituen, eta gaur egungo euskararen eta euskaldunon egoera ulertzeko beharrezkoa den iragan bati helduko diona.

Izan ere, hizkuntza bat ez du gramatikak, morfologiak, sintaxiak... bakarrik osatzen. Hizkuntzaren eta hiztunen historiak berak ere osatzen du. Hortaz, gaur egungo hizkuntza eta hiztunon egoera ulertu ahal izateko beharrezkoa den iragan baten azalpena egingo dut, gure herriak bizi behar izan zuenaren azalpena barru-barrutik bizi izan dutenen testigantzak oinarri eta lekuko hartuta.

1.3. Arloaren egoera

Geroz eta gehiago dira azkenotan Goierriko euskararen egoera ezagutu eta galdu ez dadin idatzita gordetzea erabaki duten ikerlariak. Horien artean gogora datozkit Josetxo Zufiaurre etnografoa eta Andoni Sarriegi Eskisabel euskalari beasaindarra, hauen lanek eskaini didaten laguntzarik gabe ezinezkoa izango baitzen lortu dudan informazioaren erdia lortzea ere. Baita herrian herriko hiztun zaharrenen kontuak eta hizkera jaso eta denborarekin batera galdu ez dadin liburuak idatzi dituztenak ere: Beasaingo, Zaldibiako, Ataungo, Zegamako... hizkerak.

2. HELBURUAK

Goierriko euskarak eta euskaldunek azken mende erdi pasatxo honetan bizi izan duten egoera honen berri ematea izango da lanaren helburua. Horretarako, egoera hau barru-barrutik bizi izan zutenak jarriko ditut oinarrian: euren hizkuntza besterik ez jakiteagatik sufritu eta ondorengoei hizkuntza arrotz bat transmititzea erabaki behar izan zuten familiak, euskararen egoera hobetu nahian lan ugari egin zutenak... hau dena deskribaketa ahalik eta zehatz eta osoena egiteko asmoarekin.

3. METODOA

Lana egin ahal izateko sobera material izan dut. Liburu ugari eta Interneten ere nahi adina informazio. Horien artean aukeraketa egitea lan zailagoa izan da. Hala ere, nahiz bertan aztertzen den gaia nik landuko dudana baino orokorragoa izan, nire eginbeharra egituratzerakoan oso lagungarria izan da Dabid Anauten *Euskararen Kate Hautsiak* (2013). Lan honi esker jakin dut nondik nora hasi eta, nagusiki, zein eragileri erreparatu. Zehaztasun gehiagorako, berriz, Josetxo Zufiaurreren *Irakaskuntza Beasainen* (2015) eta Andoni Sarriegiren *Alfabetatzearen hastapenak Goierrin, aurreaioak eta 1967tik 1975erakoak* (1999) lanak erabili ditut gehienbat.

Honez gain, lanaren oinarri eta norabide nagusi, bildu ditudan bi testigantzak izan ditut. Transmisio etena bizi behar izan zuten familiei dagokienez, ez da lan erraza izan hiru belaunaldiak bizi dituen familia bat aurkitzea, belaunaldi zaharreneko gehienak dagoeneko hilda baitaude. Lortu ahal izan dudana familian, ordea, bigarren belaunaldia izan zen euskara jakin, baina bere anai-arreba gazteei ez transmititzeko erabakia hartu zuena eta bere gurasoei proposamen hau egin ziena. Honi dagokionez grabatu dudana hiztuna, 62 urteko ordiziarra da, Abaltzisketan jaio eta orain Beasainen bizi bada ere. Hemendik aurrera *Zeles* izenez adieraziko ditut berak esandako hitzetatik ateratako aipuak.

Grabatu dudana bigarren hiztuna 90 urteko emakume beasaindarra da, Ixabel, 1965ean martxan hasi zen Beasaingo Ikastolako aurreneko andereñoa. Goierriko euskararen berrindartze honetan zeresan handia izan zuen emakumea, kausa horrengatik eta horretarako ia bere bizitza osoan lan egindakoa.

Hiztun hauek grabagailuz grabatu ditut eta lekukotasun horien eranskinen atalean CD batean gehituko ditut.

Nire lanean barneratu aurretik izan dudana edozein zalantzarekin edo behar izan dudana edozertan laguntzeko prestutasuna izan duten Andoni Sarriegiri, Ixabel Olanori, Zelestino Otamendiri, Dabid Anauti, Josetxo Zufiaurreri eta Lazkaoko Beneditarrei nire eskerrik onena adieraztea besterik ez zait geratzen. Euren laguntzarik gabe ezinezkoa izango baitzen lan hau egitea.

GOIERRIKO EUSKARAREN BILAKAERA XX. MENDEAREN ERDITIK GAUR ARTE



Goierriko euskara da alor guztietan gipuzkeraren barnean gehien aztertu den hizkera eta azterlari gehienak bat datoz hizkera honen nortasun eta homogeneotasun handia azpimarratzerakoan, nahiz mendebaldetik ekialdera, hots, Zegama-Segura-Legazpitik Zaldibia-Legorretara ezberdintasunak badirela nabarmentzen duten. Aurrez aipatu bezala, mendebaldeko euskalkien eragina ere izan du Goierriko hizkerak, besteak beste, Arabarekin izan dituen harreman sareen ondorioz (San Adriango pasabidearen bitartez). Ostera, Gipuzkoako gune gehienetara zabaldu diren ezaugarrietako asko ez dira Goierriko eskualdera iritsi. Izan ere, nahikoa eskualde beregaina izan da betidanik, bere barnean udalerrri handiak izan dituen, eta Nafarroarekin (Ataundik, Lizarrusti bidez) edo Arabarekin (San Adriango pasabidetik) Tolosarekin adinako harremanak izan dituen (Zuazo 2003: 138).

Ikusi beharko da, ordea, hizkera honek bizirik iraun ahal izateko, bertako euskarak azken hamarkadetan zein bilakaera eta eragile izan dituen.


4.2. 50. hamarkadako egoera linguistikoa

“Eta hoiek ya askoz giro erdaldunagoa izan zuten. Gaiñea gertatu zan, len esan dizuten bezela, gure auzoan kanpotik etorritako jendea izan zan eta kanpotik etorritakok, Tuteratik etorritako jendea zan e, pentsa e, gaur egun Beasaiña ta hemengo bizitzan erabat txertatuta dagoen jendea da. Baiño bai, hoiek gutzako kanpotik etorritako jendea zien eta hizkuntza aldatu zuten, gaztelera ekarri zuten gue auzo harta. Gure etxean bazen mikrokosmo bat edo. Han atzekalden bagendun hola jardintxo bat edo lorategi bat eo, han elkartzen giñen denok eta haiek asko erdaldundu zuten hango giroa” (Eranskina Zeles 8:20-9:10 min.)

Lekukoak ondotxo esan bezala, urte hauetan Goierriin gaztelera geroz eta nabarmenago agertzea industrializazioari eta honek berarekin ekarri zuen demografia hazkunderari estuki loturik etorri zen. Euskarak atzerakada handia izan zuen, azken urteetan bizitzen ari zen biztanleriaren hazkunde izugarri honek eragin nabarmena izan baitzuen Goierriko hizkuntza egoeran. Hala pentsa baliteke ere, ordea, eragin hau ez zen Lazkao, Ordizia eta Beasain bezalako herri handietan bakarrik nabaritu, ondorengo grafikoetan ikus daitekeen bezala, industriari dagokionez aberatsegiak izan ez diren eta ordura arte lehen sektorean lan egiten zuten ondoko herri txikiei ere eragin baitzuen (*Estatistika Institutu Nazional*-ak egindako erroldetatik ateratako datuak):



GOIERRIKO EUSKARAREN BILAKAERA XX. MENDEAREN ERDITIK GAUR ARTE



50. hamarkadan biztanleriak zer nolako gorakada izan zuen ikus daiteke grafiko hauetan denetan. Eragilea, noski, industriaren gorakada izan zen eta, nahiz eta bete-betean herri txikienei eragin ez, Goierrik bizi izan zuen demografia hazkunde izugarriaren erakusgarri dira hauek ere.

Ageri den moduan, eta herri handiagoetan ez bezala, herri hauetan urte batzuetakoa izan zen hazkundera eta, ziurrenik, ez horrenbestekoa bertako hizkuntzan izandako eragina. Lazkaon², Ordizian³ eta Beasainen, ordea, orduan hasitako hazkunderak gaur egun ere irauten du eta hauetan nabarmena izan zen euskarak izandako atzerakada. Grabatutako bi lekukoek kontatu zuten industrializazioak eta gaztelaradunen etorrerak Beasaingo eta Ordiziako giroak nola erdaldundu zituzten:

“- Industrie ya fuerte hasi zanen Espainitio jende asko etorriko zan baita, ezta? Ta ordun horrek oaindio erdaldunago Beasin ez?

- Beasin ya oso erdaldune zan. Zeatio len zeon jendea etorrita honea, aurretio, karrile in zuenen. Eta Valladolidko jendea... oain Caceresko jendea etorri dan bezela, Valladolid aldeko jendea. Eta *calle Arana*, etxe haik, haitan danatan, kastillano jendea bizi zan eta Valladolid aldeko jendea.

² *Ahotsak.com* atariko hainbat elkarrizketatan nabarmentzen dute Lazkaok, txikiagoa izanik, Ordiziak eta Beasainek baino hobeto eutsi ziola euskarari.

³ XI-XII. mendeetan hasi eta oraindik irauten duen asteazkeneroko feria ezagunari esker Beasainek baino hobeto eutsi zion Ordiziak, hau izan baita urte luzez artzain eta baserritarren bilgune.

Jende asko, asko. Eta ya Beasainen, Ordizin euskera gehio ittentzan ferigatio, Beasañen asko galdu zan, Beasañen etzan itten euskeraik” (Eranskina Ixabel 12:30-13:22 min.)

“Prailletan, badet nik hor oroimen bat politte, pentsa 40 bat, 42, 45... haur izate giñen gelako eta Ordizin, Ordiziko... euskeraz zekien ordiziarra bakarra izango nitzen. Zekiten euskeraz ere Zaldibitik, Itsasondotik, Leorretatik... etortzen zienak, herri txikitatik etortzen zienak, hoiak bazekiten. Eta nik, hori zela eta, pentsa, hortaz baliatzen nintzen. Praille bat bagendun, Beizamakoa, Hermano Gregorio esaten genion eta hark halako *mima* esaten gendun guk, bazilla aparteko... euskaraz nekielako. Euskeraz nekielako! Zeen ta bestek etzekiten, ne lagunek etzekiten euskeraz [...] nire gelan nere adineko nere lagunek etzekiten euskeraz ta batzuk baserrikoak nitun, baserritarrak nitun!” (Eranskina Zeles 3:10-4:05 eta 10:15-10:30 min.)

Azken lekukotasun honek garbi erakusten du, herri txikiak nola hala eusten bazioten ere, 1960. hamarkadarako Goierriko herri handienak, baita hainbat baserri ere dagoeneko, zein erdaldunduta zeuden

4.2.1. Egoera honetan eragin zuten indarrak

Hemen aipatuko ditudanak hizkuntzaz kanpoko indar edo faktoreak izango badira ere, gogoan izan behar da euskararen gaur egungo egoeraren eragile bat eta bakarrak ez direla hauek izan. Askotan, euskal hiztunak eurak izan baitira euren hizkuntza alde batera utzi eta dena delako arrazoia medio, erdararen bati lotu zaizkionak.

Honez gain, segidan aipatuko ditudan faktore hauek ezin dira elkarrengandik libreak edo elkarreraginik gabeak balira moduan ulertu, guztiak baitzeuden garaiko gizartean eta guztiak indartzen zuten bata bestearen eragina. Eskola, esate baterako, faktore erdalduntzaile inportantea izan zen, baina garai eta toki askotan ez zen nahikoa izan, beste gertakari batzuk ere beharrezko izan baitziren eskolaren eragin erdalduntzaile hori benetan eraginkorra izan zedin.

4.2.1.1. *Industrializazioa*

Esan bezala, industrializazioaren indartzea garai hartako hizkuntza-egoera aldatzerakoan elementu garrantzitsuenetakoa izan zen. Hasiera batean trenbidea eraikitzeak eta, honen ondorioz, XX. mendearen bigarren erdian, herri nagusienetako industriari gorakadak, erdaldunen kopurua nabarmen areagotu baitzuten Goierriko herririk handienetan.

GOIERRIKO EUSKARAREN BILAKAERA XX. MENDEAREN ERDITIK GAUR ARTE

1863. urteko irailaren 1ean iritsi zen Paris-Madril ibilbidearen zati garrantzitsuetako baten inaugurazioa: Beasain-Donostia. Honek lehen aldiz jarri zuen Goierri munduarekin harremanetan. Handik urtebetera bukatu zuten Altsasu-Beasain zatia ere, ibilbidearen azken tarterik zailena. Denera ia 400 metroko desnibelak eta Oria ibaiak eragiten zituen bihurtuak, tunelek eta zubiek buruhauste ugari ekarri zizkieten lan honetan ari zirenei. Herritar askoren diruz ordaindutako aurrerapen honek, izugarritzko iraultza ekarri zuen Beasainera eta inguruetara demografiaren eta industrializazioaren aldetik, eta ordutik aurrera bere ingurua baldintzatuko zuten hainbat ezaugarri jaso zituen.

Aldaketa izugarri honen erakusgarri dira urte haietako Beasaingo errolda datuak: trenbidea zabaldu aurretik, 1860. urtean, Beasainek 1.448 biztanle zituen (kontuan hartu behar da 1858. urterako hasi zirela trenbidea eraikitzen eta ordurako lan honetara etorritako kanpotar bat baino gehiago ere biziko zirela bertan), 1910. urterako bikoiztu eta 2.973 izatera pasa zen. Honi, mendearen lehen hamarkadetan sortutako aurreneko industrietan ekarritako espainiarren oldea gehitu behar zaio: 1930erako 5.260 biztanleko herria izatera iritsi baitzen Beasain. Hala ere, 50. hamarkadan etorri zen industriari dagokionez benetako iraultza. 20 urtean berriz ere biztanleria bikoiztu eta 1970erako Beasain 10.095 biztanleko herria izatera iritsi zen (*Estatistika Istituto Nazionale*).⁴

GAUR S.C.I enpresak 1966/67 ikasturtean Ikastetxeetako irakasleei galdeketa bat egin zien. Bertan, eskolara joaten ziren hamar urtera arteko umeen hizkuntza ezagutzari buruz galdetu zitzaizkien eta honakoak izan ziren hauen erantzunak: umeen %70ak gaztelera bakarrik zekien, %14.6ak gaztelera ondo eta euskara gaizki, %9.6ak biak ondo, %5.3ak gaztelera gaizki eta euskara ondo eta umeen %0.5a baino ez zen euskaldun elebakarra datu hauen arabera. Hala ere, inportantea da datu hauek irakasleen inpresioak, eta ez datu zehatzak, izan zirela azpimarratzea. Inpresioak ere oinarriren batetik ateratzen direlakoan eta ziurtasun gehiagoko datu zehatzik ezear, hauxe da geratzen zaigun bakarra (Sarriegi 1989: 17).

⁴ Inolako zalantzarik gabe oso interesgarria izango litzateke etorkin hauek hizkuntzan izan zuten eragina nolakoa izan zen datuen bidez ikusi ahal izatea. Ez da lan erraza izan, ordea. Liburutegietan, interneten, Lazkaoko beneditarren artxiboan... toki askotan egin dut datu hauek lortzeko ahalegina, baina ezinezkoa izan da hauetatik nahi adina ateratzea. Noizbait zehaztasun gehiagoz ezagutuko ditudalakoan, oraingoz, aurkitu ahal izan ditudan inpresio bakarrekin utzi beharko dut nire ahalegina.

Urte haietan, Espainiatik etorritako atzerritarrak jaso zituen Goierrik: Gaztelakoak ekarri zituen trenbidea eraikitzeak, Extremadura ingurukoak industrializazioak eta ia kalerik ez zuen Beasainen (baserriz osatuta baitzegoen) kale guztiz erdaldunak osatu zituzten. Azken urte hauetan, magrebiarren, errumaniarren... migrazio-uholdeek ere eragin nabarmena izan dute Goierriin. Aurreko ataleko aipuan ikusi ahal izan den bezala, bere garaian atzerritar hauen etorrerak Beasainen izandako eragin linguistikoa nabarmendu zuen Ixabel elkarrizketatuak (7. orrialdea).

4.2.1.2. *Politika*

Diktadura garai haietan, Euskal Herriko gainerako leku guztietan bezala, Goierriin ere aginte politikoa ez zegoen euskara bezalako hizkuntza txiki bati laguntzeko borondate handiz. Oro har, eta horretarako egindako ahalegin apurrak gutxieteko inolako asmorik gabe, euskarak ez baitu erakundeen laguntzarik izan duela urte gutxi arte. Kanpoko eragileek egiten zuten kontrako indarraz gain, bertako goi-klaseek gehienek ere ez zuten euskararen aldeko miresmen handiegirik erakusten:

“- Eta apaizak, alkatek, meikuk... holako jende inportantek ze itte zuen garai hartan euskeraz o erderaz?

- Erderaz. Inportantek bai. Bazeren batzuk euskaldun sentitzen zienak eta euskeraz ittentzuenak, baiño gutxiengoa.

- Ordun euskera gehiena baserritarrak ittentzuen?

- Bai, “casero burro” (Eranskina Ixabel 8:05-8:29 min.)

“- Eta garain herriko apaizak, alkatek, meikuk... hok danak erderaz itten zuen?

- Bai, bai, bai...

- Ordun zan euskera baserritarran hizkuntza

- Bai, bai, bai. Guk bai estimatzen genduela euskera, ba etxean ematen ziutelako ez? Gure ama... ama batipat e? Amak asko asko, attek besterik etzion esango, bai amak batipat euskeraz ikasi nahi... [...] eta elizkizunak, ordun haurrentzako egiten zien elizkizunak, zeen ta ordun elizan igandero meza izaten genuen, eskolatik junda ta... eta izan gendun apaiz bat oso oso umekin zuzenean jardun zena eta. Baiño funtzio guztiak gaztelera hutsez” (Eranskina Zeles 7:05-8:00 min.)

Gauzak honela, euskarari gaur egunera arte nola-hala eutsi diotenak “baserritarrak” edo herritar xeheak izan dira. Eta honek euskararen erabilerari mesede handiegirik egin izan ez dion prestigioa ekarri zion, inolako prestigiorik gabe “maila baxuko” zereginetarako zokoratu izan baitugu gure hizkuntza (Izagirre 2010: 50):

Artzain, artisau, jostun, olagizon, hargin, morroi, zamaketari, mandazain, inude, erre kardari, mahastiri, laborari, neskame, arrantzaleen... hizkuntza izan da atzo arte: arrazoia zeukan Unamunok, euskara egokia zen behiak

GOIERRIKO EUSKARAREN BILAKAERA XX. MENDEAREN ERDITIK GAUR ARTE

nola janaritu eztabaidatzeko, arrazoia zeukan Barojak, ezin euskalduni ez zitzaion otuko Hegelen *Logika* itzultzea.

Hortaz, euskara, ia landa mundura bakarrik mugatua geratu zen, baserritarren eta herri txikietakoen hizkuntza izatera kondenatua.

“Gu, umetan, uda pasatzea Abaltziketa jute giñen. [...] eta guk hikan Abaltziketan ikasi gendun. Ez gendun aukeraik izan hori... Ordizin. Norekin hitz egin behar gendun? Etziguten hitz egitten. Ba hika han ikasi gendun eta, baita ere, hizkuntza gure bizitza arruntean txertatzen, bai geon arteko komunikazioa izaten. Gure osabak esatentziun “honekiñ gazteleraz eñ! Ikasi in beharra dauke eta!” eta guk, noski, gure komunikazioa euskeraz hasi genuenez, lehengusuarekin ez genuen gazteleraz egiten” (Eranskina Zeles 16:15-17:25 min.)

Euskaraz gozatzeko aukera, landa eta baserri eremura mugatua zegoen garai hartan eta grabatutako hiztunetako baten kasuan Abaltzisketa izan zen aukera hori eskaini zion lekua. Herri handiagoetan, gehienera ere, etxean bakarrik erabili zitekeen hizkuntza baitzen.

Frankismoak ez zien estatuko hizkuntza txikiei arnasarik hartzen utzi nahi. “Estatu bat, nazio bat, hizkuntza bat” ideiarri jarraituz, hizkuntza txiki hauek desagerrarazteko inoizko ekimenik sistematikoena, gogorrena eta bortitzena hasi zuten. Hizkuntzari dagokionez, ezarritako debeku politika hau bereziki latza, gordina eta agerikoa izan zen gerran bertan eta ondorengo bi hamarkadetan.

Jomuga zuten helburu honetara iritsi ahal izateko, badirudi, garai hauetako biztanleriaren hazkunde izugarria estuaren beste neurri programatua bat baino ez zela izan. Ia euskara hutsean bizi zen eskualde bat, 100 urteren bueltan, bere jatorrizko hizkuntza ia galtzera iritsi baitzen (Sarriegi 1989: 16).

Kasu askotan, nahikoa izan zen ezer egin gabe itzarotea inertziaren pisuak hizkuntza gutxitua zulora bultza zezan, hizkuntza nagusiari erabateko prestigio, balore eta babesa emate hutsak, hizkuntza gutxituari bizirik irauteko geroz eta esperantza gehiago kentzen baitzion. Hala ere, behin baino gehiagotan esku hartu zuten eta euren hizkuntza besterik ez zekiten hiztunek sufritu behar izan zuten hauen errukirik gabeko atzaparra. Ezartzen zuten politika gogor honen lekukotasun bat lortu ahal izan dut Ixabelen bidez:

“Len esan dizut baserritar... berdurea saltzea etortzen zala “porru perrejil” ba behin tropak sartu zienen hemen, gerrakon, hemen sartu zien eun baten arratsalden, egurditik arratsaldea bitarten, eta handik eun batzuta, astearten ferie, baiño oaindio soldaduk hemen zebiltzen batzuk. Eta “porru

perrejil” hoi eta beste emakume bat euskeraz harrapau zittuen. Hartu zittuen bik [...] atzekalden baratze antzeko batzuk zien eta ni juten nitzen eskola, mojata, zeon han eta guk balkoiti ikusi gendun oain kontau behar dizueana. Eamantzittuen bi emakuma haik, bi soldau eo hiru eo lau, eztakit zenbat zien, zea, atzekalde harta [...] hautza eamantzittuen eta batek zeraman ispillu haundi bat, beste batek zeramazkin astoai illea mozteko goraizak eta beste batek eskobilla txiki bat bezela. Banaka hartu zittuen, bi emakuma hoik, eta bat zai zeon bittarten bestei, dana ikusten bestea. Trapu zar bat jarri ziuen zea, illea moztu ziuen goraiza haikin, pentxa nola moztuko ziuen, eskobilla haikin kendu zizkiuen illek eta ispillu bat aurrekalden jarri ziuen ikusteko. Oaindio re oilloipurdie jartzentzat. Ba eztakit ze emantzien, untura beltz bat, zeatik ez tet pentxatzen galipota izango zanik, beste zerbait beltza emantzien eta kalen ibili zittuen eakusten. Alegie, euskeraz etzala in behar eta ikusteko ittentzonai zer gertatzen zitzaion” (Eranskina Ixabel 8:50-12:10min.)

Lekukoari oilo-ipurdia jartzen dion testigantza honetan ikus daitekeen bezala, ordea, frankismo garaian, esplizituki ere debekatu zen euskara. Eta honek azkartu eta bultzatu egin zuen euskararen ahultzea lehendik ere kanpokoen etorriak nahikoa zokoratuta utzi zuen Goierri bezalako arnagune batean.

4.2.1.3. *Eskola*

Euskaraz zekiten maisu-maistrak oso tarteka etorri arren, ia 80. hamarkadara arte Goierriko herri gehienetan eskolak gaztelaniaz eman izan ziren. Euskara hezkuntzan sartu aurretik eskoletan egiten zena bidegabekeriatzat salatu zuen J. I. Iztueta idazle zaldibiar ospetsuak XIX. mendearen hasieran (Rodríguez 1996: 29):

“Ez da lotsagarri ez ezic, mingarri ere, Gipuzcoaco erri leialetan gazteria eskolatzeko, itzcho bat bakarra ere euskaraz ez daquiten maisu erdaldunak ifintea? Eta oraindik are illgarriago baicic ez da, escolaco aur gaishoari itz bat euskaraz erorten zaiotelako, beraren etsai azagutuak dauden guizon erbesteko oek ematen diazaten azote gogorrac ontzat eramatea. Cer bada!

¿Ain becatu andia da euscaldunai euskarazco itza jalquitzea? ¡Há euskara maitagarri bicicor guishaishoa! Ez dira, ez campotarrak bacarrik zu icusi nai etzaituztenac...”

Iztuetak ez zizkien kritikak kanpotarrei bakarrik zuzendu, hemen bertan ere euskal hiztunen alde gehiegi egiten ez zuten herritarrak bazirela ikusten baitzuen. Grabatu ditudan bi hiztunek ere, batak Beasainen, besteak Ordizian, erabat gaztelera ikasi zutela esan zuten:

“- Ta ordun zuk, zeorrek dana erderaz ikasi zendun ezta? Dan dana, ikasten hasi ziñenetio bukau zendun arte dana erderaz ikasi zendun zeorrek
- Nik dana, dana, dana... [...] Hasieran ni 3-4 urtekin hasiko nitzen parbulotan, dana erderaz, ordun dana erderaz. Gero mojan dana erderaz, gero instituton dana erderaz. Euskeraik aittau re ez! Zanik e!” (Eranskina Ixabel 6:00-8:05 min.)

GOIERRIKO EUSKARAREN BILAKAERA XX. MENDEAREN ERDITIK GAUR ARTE

“- Ikasketak 18 urte arte ein nittun nik, gehienak Ordizin: lenengo Karmelitak, geo praillek eta geo Beasingo istitutoa ta ya lanea.

- Ta ze hizkuntzatan ikasten zenduen?

- Gazteleraz, gazteleraz, guztiz guztiz” (Eranskina Zeles 2:30-3:00 min.)

Eskola izan da euskal hiztunak erdalduntzeko inoizko tresnarik eraginkorrena. Baita ikasleei ideologia baten aldeko eta beste batzuek kontrako ideiak zabaltzeko instituzio erabiliena ere. 1857an onartu zen “Ley Moyano de Educación” delakoaren eskutik, gaztelerak izan behar zuen espainiar estatuko eskola guztietan garai hauetan erabiliko zen hizkuntza bat eta bakarra. Goierrin 1876tik aurrera hasi zen indarrean lege hau hori horrela izan zedin beharrezko neurri guztiak hartu zituen garaiko gobernuak (Sarriegi 1989: 9).

Aurreneko lege nagusi honekin lotuta, beste hainbat erabaki ere hartu zituzten. Lehen eskoletan zeuden maisu-maistra gehienak euren lanpostuetatik kendu eta eskola material zaharra erregimen berriarekin bat zetorrenaren bidez ordezkatu zuten. Irakasleak, kanpotarrak izan ohi ziren, noski, eta liburuak, gazteleraz. Horrela adierazi zuen Ixabel elkarrizketatuak ere:

“Aiako guraso batzuk etorri zien Escuela de Magisterio-ra galdezka ia euskera zekin norbait zeon urte hartan bukau zona eta zuzendarik ni presentau niñun. Aiako auzo baten, San Pedro auzon, etzeon eskolaik. Aia oso zabala da, ta dauzke auzo asko eta hor etzeon eskolaik eta eskolea in behartzuen eta bazekien seguro seguro ekartzen zuen maisue eo maistrea erdaldune izango zala, zeatik ordun etzeon besteik. Eta aurretik ume hairi erderaz erakustea” (Eranskina Ixabel 3:25-4:20 min.)

Argi esan zuen Ixabelek garai hartan ez zela maisu-maistra euskaldunik izan ohi, besterik ez zegoenez, seguru baitzeuden ekartzen zutena erdalduna izango zela. Honez gain, lekukotasun honetan argi ikus daiteke ume euskaldun elebatarrek⁵ gaizki pasatzeko gune bat izaten zela eskola erdalduna. Umeek momentu txar hori pasa beharrik ez izatea zen euren gurasoen helburua, eta horretarako joan ziren Ixabelen bila.

Grabatutako beste lekukoari dagokionez, bere maisuak bertakoak zirela esan zuen, baina ez zutela inolaz ere euskaraz hitz egiten:

“- Ta maisuk ze izaten zien bertakok ala kanpotarrak?

⁵ Kontuan izan behar da aurrez aipatutako migrazioek horrenbesteko eraginik izan ez zuten Goierriko herririk txikienetan eskolara joaten ziren umeen ehuneko handi bat euskaldun elebatarrek osatzen zutela.

- Mojak enaiz goatzen baiño... eztakit, haik eztakit. Praillek normalen bai zien hemengok edo inguru hontakok, baiño haiek guri dena gazteleraz egiten ziguten". (Eranskina Zeles 2:53-3:10 min.)

Izan ere, agintarien ustez euskara ez zen hizkuntza bakarrik. Politikoki ere eragiten zuen. Euskaraz egiten zuen apezpiku edo maisu batek euskaldunen nortasuna areagotzea ekarriko zuen eta Espainiako estatuaren barruan nazionalitate ezberdineko talde bat sortzea eragin, banaketa politiko bat. Honenbestez, espainiar guztien berdintasuna mantentzeko, eta gaztelera hutsean egingo zutela ziurtatzeko, hobe zen euskaraz ez zekiten kanpoko maisu edo apaizak ekartzea.

Ikasle euskaldunek zekiten hizkuntza bakarrean hitz egiteko bizi behar izan zuten debekuari, ideologikoki eta psikologikoki jasan behar izan zuten presioa ere gehitu behar zaio: euskarak ezer gutxitarako balio zuen, oso hizkuntza mugatua baitzen. Beheko lekukotasunean ikusiko dugun moduan, euskaraz esandako ezer ez zen baliozko izango:

"Ni eskolan hasi nintzenen ez nekin gazteleraz, edo oso gutxi nekin. Eta ni, bai gogoratzen naiz, badet gogoan, nola... eukiko nittun sei-zazpi urte o hola, erantzun nahi nun, gazteleraz, baino ez nun baliabideik, ez nuen tresnarik, ez nuen... ni euskaldun peto-pettoa nintzen eta ez nuen hori... eta ez nekielako erantzuten gazteleraz, ba gelditu nintzen ezjakindun bezela. Ez? Praillek galdetzen zuenari. Gaiñea gogoratzen naiz zertzan. Zan e... esan behar gendun "pinza" erantzun behar gendun eta nik "gantxo" esaten nun eta prallek etziñ ontzat ematen " (Eranskina Zeles 4:15-5 min.).

Aztergai dugun garairako dagoeneko indarrean ez zegoen zigorra bada ere, ezin aipatu gabe utzi eskolak hiztun euskaldunekin erabilitakoen artean zigor ezagunena, eraztunarena⁶ hain zuzen ere. Euskaraz hitz egiten zuen haurrari eraztun bat ematen zitzaion eta honek, eraztun horren jabe izateak astearen bukaeran ekarriko zion zigorra saihestu nahi bazuen, bere ikaskideen artean euskaraz sumatzen zuenari eman beharko zion. Hau horrela, ikasleek momentu oro elkarren zelatan egon behar izaten zuten eraztuna nori pasako. Lekukotasun bati esker⁷, badakigu dagoeneko 1730. urterako martxan zela lege hau Beasainen, eta ez zen urruti ibiliko Goierriko beste herri handi samarretan ere: "Y que no se les permita hablar en vascuence, sino en castellano, poniendo anillo y castigándoles como merecen" (Torrealdai 1998: 15). Eraztunaren legea Goierri indartsu izan zela ziurtatzeko lekukotasun bat baino gehiago ditugu *Ahotsak.com* atarian.

⁶ Dinamika hau Europako beste hizkuntza batzuetan ere erabilia izan da, galesez ere, adibidez, "nota galesa" izeneko lepokoa erabiltzen baitzen zigor gisa.

⁷ Eraztunaren erabilerari buruz iritsi zaigun lekukotasunik zaharrena

GOIERRIKO EUSKARAREN BILAKAERA XX. MENDEAREN ERDITIK GAUR ARTE

“Eraztunaren helburua ez zen gaztelera ikasaztea, baizik eta euskaraz ez egitea. Umeari buruan sarrarazi behar zaiona ez da gaztelera, buruan jaso behar duena da ez duela euskaraz egin behar” (Izagirre 2010: 22).

4.2.2. Indar hauek gizartean izandako ondorioak

4.2.2.1. *Euskaldunen autoestimuan zauriak*

Lotsa, beldurra, gutxiagotasun konplexua... hauek denek euskaldunak gaztelera ahal bezala ikasi eta euskararen ordeztu erabiltzera eramane zituzten. Izan ere, aurrez aipatutako indar guztiak medio, euskara atzerapenaren ikur bihurtu zen, lehengo bizitza tradizionalari eutsi nahi ziotenek bakarrik erabiltzen eta defendatzen zuten hizkuntza. Maila jasoxeagoko bizitza moderno bat bilatzeko esperantza zutenek erdaren alde egin behar izan baitzuten eta hala egin zuten, erdara baitzen maila jasoko edozein lanetan eskatzen zen hizkuntza. Industriara kanpotik etorritakoek erdara ekarri zuten eta mundu honetan sartu nahi zuen edonork baldintza horretara egokitu beharko zuen.

Behin baino gehiagotan entzun zen gaztelera euskara baino hizkuntza osoagoa, aberatsagoa eta maila jasogokoa zela. Eta hau euskal hiztun ia elebakarren burla arrazoi izan ohi zen. Euskara hiltzera zihoan handiago eta barne antolamendu hobeko hizkuntza batekin zuen talka jasan ezin zuelako, baina horrek ez zeukan irtenbiderik (Unamuno apud Izagirre: 39).

Hizkuntza muga izugarria izaten zen garai hartan edozertarako. Gazteleraz apenas zekiten gurasoek euren umeen maisuekin komunikatu ahal izateko ere zailtasunak izan ohi zituzten:

“Ordun joera haundie zan, horrela, hizkuntzak pentsa ze mugak jartzen zizkien, etzekitelako edo etzutelako konfiantzarik gazteleraz nola in behar zuten, beste norbait bialtzea, kofñata bat edo... eta ama bea juten zan eta esaten zon: “ni danakin enteitzen naiz! Hobeto eo okerrago!” klaro, enteittu ittentzan! Beak bazekin etzula ondo itten gazteleraz, baiño karakter haundie zun ta hue etzen atzea gelditzen hola kikilduta” (Eranskina Zeles 4:00-4:50 min.)

Euskaldunak eurak ere euskarak ezer gutxitarako balio zuela pentsatzera iritsi ziren eta erdara zen ikasi beharrekoa. Grabatutako hiztun gazteenaren familian ere antzeko zerbait gertatu zen:

“Nik etxean intuitiboki haiñ umea izanik amari esan nion hura “ama, ume honi eztiogu euskeraz eakutsi behar, baizik eta gazteleraz, zen ta nik ez det jakin prailleari erantzuten” nire esperientzitik. Baiño nik ordun neuzken sei-zazpi urte, oso oso umea nintzen. Hori gerogo bizi izan genun osabarekin. Osabak esaten zigun “honi gazteleraz iozue! Honek gazteleraz ikasi behar do ta!” Noski lehengusuk, hango maisue, Abaltziketako maisue, kastellanoa izango zun, baiño karo, osaba kontuatuko zan harek etzula gazteleraz egiten guk egiten genun erreztasunarekin eta nahi zun transmisio hori, karo ze osabak praktikoki ikusten zun “honek gaztelera behar du”, nik nolabait intuitiboki ikusi nuen, umetan ikusi nuen hura bea” (Eranskina Zeles 17:30-18:15 min.)

Hala ere, hiztun batzuk eurenari eusteko gauza izan ziren, nahiz ezer gutxitarako balio zuela buruan sartzan saiatu, eta etxeko transmisioaren etena ez zen erabatekoa izan. Elkarrizketatutako baten familiaren kasua da hori. Izan ere, bere gurasoek seme-alaben arteko elkarrizketak %100a gazteleraz izatea onartu arren, ez zuten gazteen bide bera hartu eta euskaraz hitz egiten jarraitu zuten. Belaunaldi berrientzat gaztelera beharrezkoa zela ikusten zuten, baina, besterik ez bazen ere, etxeko jatorrizko hizkuntza ulertzea nahi zuten.

“Gue amak etzizun hitzerdi bat e gazteleraz ingo, sekula santan etzizun itten, dana euskeraz ittentzun eta mundu guztikiñ euskeraz egitentzun. Honbre, behartzunen pasako zan gaztelerara. Eta attek ere bai, etzuten iñungo joeraik ez ez [...] Hori bai, ni oso ondo gogoratzen naiz amai nola esan nion: “ume honi eztiou euskeraz eakutsi behar” [...] Eta hola askotan buelta eman izandu diot eta neri amak etziñ ezezkoik esan, etziñ esan “ikasiko do gazteleraz eta euskeraz in behar diogu!” edo horrelako ateraldi bat, gaur egun nahiko logikoa izango litzekena. Ez, etziñ esan... baiño beak euskeraz itten jarraitu zon” (Eranskina Zeles 5:43-7:37 min.)

Aurrez aipatutako politika gogor horrek ondorio sakonak eta epe luzekoak utzi zituen, sendatzen zailak diren ebakiak egin baitzizkion gure hizkuntzari eta hainbat belaunaldi euskararik gabe utzi zituen.

“¿Quién puede extrañarse que tras siglos de machacar al euskera y su comunidad lingüística desde la escuela hasta la tumba, desde el Estado, los periódicos, la intelectualidad, la Iglesia, tras haberse insistido en su inutilidad y torpeza, tras tanta represión, persecución, vejación y burla, quién se extrañará de que el vasco parlante abandone (<libremente>) su lengua, la odie, no la transmita a sus hijos? Es el autoodio lingüístico, fenómeno bien conocido en sociolingüística.” (Torrealdai 1998: 10).

Euskara etxeko hizkuntza zen eta, Ixabelek ondo esan bezala, handik kanpora ezin zen ezertarako erabili. Erabiltzen zuenari lehen aipatutakoa moduko zigorrak etorriko zitzaizkion. Honez gain, garaiko giroak eraginda, hizkuntza asko maite zuten hiztunek eurek ere euskarak ezer gutxitarako balio zuela onartu eta gaztelerari eman zioten lehentasuna.

4.2.2.2. Hizkuntza transmisioaren etena

Euskaldun askok bizi behar izan dute erdaraz hain ongi ez moldatzeagatik lotsa edo konplexua. Eta honen ondorioz, urte hauetan bizi behar izan zuten errepresio-giroak eta erdararen aldeko erabateko presio sozialak horretara bultzatuta, milaka izan dira aitona-amonak eta gurasoak euskaldunak izanda ere, euren seme-alabei euskara ez erakustea erabaki izan duten familiak. Aurreko orrialdeko (15. orrialdeko) azkeneko lekukotasuna da euskal familia askok hartu behar izan zuten “ume honi ez diogu euskara erakutsi behar” moduko erabakien erakusle.

Honakoa esan zuen gai honi buruz Sánchez Carrión “*Txepetx*” filologo espainiarrak:

“Como euskaldún, su derecho a transmitir el Euskara a sus hijos es, correlativamente, su responsabilidad con respecto a la comunidad lingüística euskaldún y al Euskara [...] Por tanto, esté en Londres, en Legazpia o en Mongolia tiene el derecho a reclamar internacionalmente que su lengua de identidad tenga un territorio en el que pueda reproducirse como lengua completa, pues de lo contrario no puede ejercer su derecho individual plenamente, ya que la identidad lingüística que conserva y transmite a sus hijos estará mutilada al no poder vivirse como una identidad completa en parte alguna del mundo” (Sánchez Carrión 1991: 306).

Euskarak, ordea, garai hauetan libre izateko izan zezakeen gunek bakarra ere galdu zuen euskal familia askotan: etxea. Beldurra, lotsa edo debekua tarteko, euskaldunek ezin izan zuten euren identitatea bete-betean bizi eta belaunaldiz belaunaldi gero berreskuratzen oso nekeza izango zen beherakada izan zuen euskarak. Izan ere, eskolan erabat erdaraz hezitako ume batek baino gehiagok gaztelera eraman zuen etxera eta euren lagunak baino gutxiago zirela ez sentitzearren, baita euren aurreneko hizkuntza bihurtu ere.

Hizkuntzek bizirik iraun behar badute transmititu eta hitz egin egin behar dira, hizkuntzak ez baitira berez, gertakari biologiko bat balira moduan, hiltzen. Hil egiten ditugu: atxikimendu falta dela, hizkuntza handiago baten presioa dela... euskaldunen kasuan, ordea, hiltzaile rol horretara bideratuak izan dira milaka familia, aukera egin ahal izateko ere nortasunik gabe. Asko eta asko behin ezkutatu behar izan zuten nortasun hori gerora ere berreskuratzen ahalegintzeko indarrik gabe.

4.3. 60ko hamarkadako euskaldunen erreakzioa

Berriz ere herri gisa genuen batasun sentimenduaren jakitun eginda, herriak egoera gogor hari aurre egiteko moduak bilatu eta ahalegin indibidualari nahiz kolektiboari esker, behin 50eko hamarkadatik aurrera, herri-mugimenduak hasi ziren. Euskaldunek ez zuten indarrean zegoen frankismoaren beldurrik izan eta ez zuten hau indarrez usturarte itxaron mugimendu txikiak egiten hasteko. Modu honetan, aurretik galdutako nortasun hura berreskuratu nahirik, sistema harentzat ere geldiezina izan zen mugimendu euskaltzale bati eman zioten hasiera.

Izan ere, aurrez nolabait debekatutako horri gogor egin eta aurrera ateratzeko indarrak elkartu zituzten euskaldunek nonbaitetik. Honek kontzientziazio-prozesu bat izan zuen eta hitzun askoren artean, nik grabatutako lekukoaren kasuan bezala, izugarriko pentsamendu aldaketa:

“Pentsa gero nolako buelta eman behar izan genion ge buru horri, ni soldauska juteako, ni 21 urtekin jun nitzela, baño orduko ingo nittun ba bi ikastaro gaueko ikastoletan, euskeran alfabetatzeko” (Eranskina Zeles 10:50-11 min.)

Hortaz, hizkuntzaren inguruko ideiek denbora pasa ahala aldaketa handia izan zuten. Ia umeentzako hizkuntza izatetik, hitzun askorengan konpromisu politikoagatik, eguneroko etxeko hizkuntza izatera pasa zen:

“Hauek ere etzien bate trebatu euskeraz. Hitz egingo zuten, baina, beharbada, haur hizkuntza bezela gehio. Eta gero kontzientzia politikoagatik trebatu zuten euskera. Eta askatu hola hitz egiten dendan, beharko, karo jendea denda etortzen zaizu eta euskeraz itten dizu, zuk nola in behar diozu? Kortesiaz, gutxienez erantzun behar diozu eta, gaiñea, kontzientzia baldin badezu are ta gehiago ez?” (Eranskina Zeles 0:30- 1:05 min.)

60ko hamarkada hau hizkuntzaren prestigioa areagotzeari eta hitzunak berreuskalduntzeari dagokienez oso emankorra izan zen eta etxean euskararik jaso ez zuten euskal herritar asko, egoeraren kontzientzia harturik, euskalduntzen edo alfabetatzen hasi ziren, askotan, euskaltegi eta gau-eskolen bidez⁸. Nik grabatutako hitzunaren arreba gazteagoak ere, anaiaren erabakiz, ez zuen etxean euskararik jaso eta gerora nola euskaldundu zen aipatu zidan:

⁸ Handik urte batzuetara euskalgintza ematen ari zen pausu geroz eta handiago hauen fruitu izango zen gaur egun hain ezaguna den Lazkaoko Maizpide euskaltegi-barnetegia.

GOIERRIKO EUSKARAREN BILAKAERA

XX. MENDEAREN ERDITIK GAUR ARTE

“Eta Maripik Magisteritza egintzun eta gero, Magisteritza egiten ari zela, ba euskaldundu, alfabetizatu... baiña ulertu dena ulertzentzun zen ta gurasok euskeraz hitz egiten zioten eta beak hitzerdi bat e ez” (Eranskina Zeles 7:35-7:54 min.)

4.3.1. Ikastolen sorrera

Egoera zegoen moduan egonda, geroz eta garbiago zegoen gizartea berriz euskaldundu nahi bazen, beharrezkoa izango zela aurreko urteetan tresna guztiz erdalduntzailea izan zen hezkuntza-sistema ordezkatu eta euskaldun elebkarren eskubideak errespetatuko zituen bat ezartzea. Behin Gerra Zibila pasa eta diktadura urteetan egoera pixka bat lasaitzean hasi zen mugimendu euskaltzalea berriz ere indartzen.

Mugimendu hau berehala konturatu zen euskara eta eskola lotzeko garrantziarekin, eta bide honetatik sortu zuen Elbira Zipitriak gerraondoko lehen Ikastola Donostiako bere etxean, modu honetan, 60ko hamarkadan indartsu lehertuko zen mugimenduari hasiera emanez.

Garai honetan inportante bihurtu zen Goierri, euskarari asko eskaini baitzion. Orduan hasi zen bestela prestakuntzarik izateko aukerarik izango ez lukeen jendea apaiztegietatik formatuta ateratzen eta Ikastolen mugimendu honi irakasle prestatu asko eskaintzen.

Goierriin, euskarari dagokionez beste askotan bezala, Lazkao izan zen Ikastolen bide hau urratzen lehena 1963-64 ikasturtean. Bide beretik segiz, Beasaingo Ikastola izan zen 65. urtean ateak zabaldu eta Goierriko gainerako mugimendu euskaltzaleei horretarako bultzada eman ziena. Hain herri handi eta erdaldundu batek horrelako urratsa emateak babes handia eskaini zien herri txikiagoetako Ikastola sorrera ahaleginei: 1966an Ormaiztegin eta Urretxun, 1967an Zaldibian eta Seguran⁹, 1968an Ordizian...

“- Atte, galdera bat: Mari Piliri nola etzenioten euskeraz eakutsi nahi, erderaz bakarrik, ta geo Kamoni ta Amaiai? (elkarrizketatuaren alabak bere arreba bati ez erakusteko erabakia nola hartu zuen ikusita, ondorengo bi senide gazteenekin erabaki horri zergatik ez zioten eutsi galdetzen dio)

- Ez, Kamoni ere berdin gerta zitzaion, horrek arrastratu zon Kamon ere bai. Baiño gero ya Amaia tokatu zan Ikastola garaikoa. Osea, Maripi eta Joserra etzien Ikastolara jun, hoiei etzitzaien Ikastola tokatu ta ordun, hoiek, nahiz eta gurasoek euskeraz egiten zioten, baiño bai auzoko giroa

⁹ Seguran Gerra Zibila baino lehen izan zen Ikastola sortzeko ahalegin bat, baina diktadurako urteek bertan behera utzi zuten horrelako ezer egiteko ahaleginik txikiena ere.

erdalduna zen eta, guk ere, ya orduako anaion arten dana gazteleeraz eitten genuen” (Eranskina Zeles 4:50-5:25 min.)

Beasaingo Ikastolako aurreneko andereñoaren testigantza eta sortze lan honetan parte hartu zuen gurasoetako batek honi buruz idatzitakoa eskuartean¹⁰, ezin egoera ondoen dakitenen ikuspegitik jakiteari uko egin. Hortaz, puntu honetan bereziki Beasaingo Ikastolaren sorreran zentratuko banaiz ere, ez ditut antzera sortuko ziren Goierriko gainerako Ikastolak ere ahaztuta.

1964. urtean guraso talde bat bildu eta, Ixabelen hitzak gogora ekarriz, “Beasaingo euskara berpizteko” hurrengo ikasturtean zabaldu zituen Beasaingo Ikastolak bere atepak aurreneko aldiz¹¹, Escuela de la Iglesia Nuestra Señora de Loinaz izenez Elizaren babespean. Izan ere, eskuartean darabilgun ekimen honen sorrerari dagokionez, ezin aipatu gabe utzi herriko apaizak, Segundo Dorronsorok, eta kapilauak, Jesus Dorronsorok, izan zuten rol ezinbestekoa. Lehenak, Ikastola legala izan zedin eta ziurtagiri ofizialak lor zituzan honen titular izatea onartu zuen eta lehen urteetan lanean hasteko Elizarena zen San Inazio kaleko lokal bat eskaini zuen. Bigarrenak ere, 68-69 ikasturtean Ikastola handitzen hasi zenean, bere etxebizitza eskaini zuen, baita lehen aldiz eskola-udalekuak antolatu zirenean bere senideren baten etxea ere. Behin baino gehiagotan azpimarratu zuen Ixabel elkarrizketatuak ere hauen inportantzia:

“Eta asko juten zitzaiun apaiz bat bazan hor Porterin, Don Jesus, ataundarra, oso gizon ona eta euskaltzale amorratue, eta hori eotentzan asko han gurekin, fijo ez baiño... eta etxea re zan bere pariente batzuk Ameriketa jun ta utzitako etxea, oso etxe ederra” (Eranskina Ixabel 22:13-22:39).

Eskola materialari dagokionez ere, laguntza handia eskaini zuten fraideek:

“Mutillek bakarrik genduken baimena... mutillei bakarrik eskola emateko. Zeati praillek, hortan ondo portau zien, eskolaritateko liburue izatentzan eta eak emango ziela eskolaritateko liburue, baiño mutillei. Zeati ordun prailletan mutillek bakarrik ibiltzentzien. Ordun neskak komuneren sartzen giñutzen (Erregistoren bat egitera etorritakoan)” (Eranskina Ixabel 27:05-27:43 min.)

¹⁰ Josetxo Zufiaurrek 2015 Beasaingo Paperak-en argitaratu zuen *Irakaskuntza Beasainen* lana.

¹¹ Ez litzateke guztiz zehatza aurreneko Ikastola hau izan zela esatea. Izan ere, badaude 1917an guraso talde batek Ikastola bat, edo behintzat, euskaraz klaseak emango zituzten eskola bat, sortu zuela ziurtatzen duten datuak, nahiz honi buruz informazio gutxi lortu ahal izan den. Guraso talde honek Udalari laguntza eskatuz gutun bat idatzi zion eta, badirudi, Udalak gorabehera legalak tarteko, laguntza eskaera honi ezezkoa eman ziola. Hortik aurrera ezer gutxi jakin ahal izan dugu (Zufiaurre 2015: 116).

GOIERRIKO EUSKARAREN BILAKAERA XX. MENDEAREN ERDITIK GAUR ARTE

Beasaingo Ikastolak aurreko urtean Lazkaon zabaldu zen Ikastola izan zuen eredu eta bertan lan egindako jendearen laguntza izan zuten euren proiektua aurrera atera ahal izateko. Aurreneko andereño izan zen Ixabel bera, 63-64 ikasturtean egun askotan joan zen Lazkaora, irakaskuntza sistema berrira egokitzeko. Modu honetan, aspaldiko partez 24 ume beasaindarri euskara hutsean ikasteko aukera eskaini zitzaizen:

“Ni hasi nitzen, ni izan nitzen aurreneko andereñoa eta guraso batzui esker, zeatio merittu guztie... Josetxo Zufiaurre, nere anai bat Karmelo Olano eta Erguin bat eta Manolo beste bat, sei guraso ustet ziala... eta Joanito Agirre. Hairi eskerrak. Zeatio haik moittu zuen...” (Eranskina Ixabel 13:50-14:37 min.)

Lehen urteetan Ikastola honen sorrera, beste guztiena bezalaxe, ez zen samurra izan. Honela kontatu zuen Ixabelek komunik gabeko soto txiki batean aurreneko 24 umeak nola hartu zituen:

“Ni zea bukau berrie, titulokin eta ean ustez aproposa hasteko. Calle San Inazion [...] behintzat, portal baten bajun, osea baju... entresuelon zeon Gaztedi eo klub bat, zeoze zeon... Accion Católican... eta azpin zeren oain garajek dienak. Osea, espaloian azpitio. Neuzken, eztakit zenbat osea, sartu portalen, ateik ez, eskillarak aurrena, zazpi eskillara eo, zabal-zabalak eta atea. Eta beran sotoa. Etzeon komonik, 24 ume neuzken, ez neuken komonik, zeon habitazioa bere ate ta guzti, baiño sobrare zea... saneamendue gaizki inda, eta gaiñezka ustet itten zola komunek. Komune kendu ta porlana botata baiño zeon habitazioa. Ordun nik etxeti eaman nittun baldek... balde bat ta oriñal bat eta lau urteko umeak oriñalen baiño gustoago iñun ez! [...] aste guztin ibiltze nitzen han garbittuz baldea eta larunbatetan... ordun larunbaten etzan ya eskolaik izango, astebukaeran nere baldea ta oriñala barrun zola hartu ta etxea jutun nitzen beakin. Etxen ondo desinfektatze nittun lejiakin da ta astelenen atzea ne bolso politt harrekin eskola” (Eranskina Ixabel 13:47-17:50 min.)

Bidean aurrera egitea ere ez zen lan erraza izan, urte haietan euskara hutsean irakasten zuen ikastetxe batek ez baitzuen oztopoak besterik izaten agintarien aldetik. Ixabelek Guardia Zibilekin behin baino gehiagotan izandako gorabeherak kontatu zituen:

“Beasainen Ikastola hasi zanen Guardia Zibile etortzen zitzaidan nei. Eta nola ordun tituloik gabeko andereñoak bazeuden, nolabait desagertuarazi in nahi zuen Ikastolea, ordun, horri heldu zien. Tituloik ez bazeuken, fuera! Baño nik nola tituloa neuken... eztakit zenbat aldiz etorri zitzaizkian! “¿Es usted maestra?” “Yo, si” “Pero ¿Maestra, maestra?” “Si, si, yo soy maestra! Eta eakutsi itten nien tituloa. Eta etzien konformau [...] Behintzat behin, Guardia Zibilek etorri zien [...] Beasaingo festa batzutan etorri zitzaidan nei etxea parejea eta eakin juteko eskola eta “ni, zergatik jun behar det?” bai, erregistro bat in behar zuela ta gutakon bat eon behar zola presente. [...] sartu giñen eta ganbarea zon etxe harrek eta ganbara iotzeko zeuken eskillara bat jartzen zana [...] tranpala zeuken goien eta haren neurriaño

alleatzen zan eta, klaro, zeren markak tetxun, esku markak. “¿Estas marcas de que son?” “Pues esas marcas son de que alguien ha subido al gambarote y en el gambarote como hay hollín se ha manchau las manos y al bajar otra vez...” “¡Suba usted y mire lo que hay dentro!” “¿Yo? A mirar han venido ustedes, suban ustedes, yo no subo ahí”. Eta etzien io! Eta han genbintzela, motxilla bat, baztar baten lurren “¿Y esto?” “Pues eso es algo que se le ha olvidau a algun niño” “¡Ábra!o!” “Que ya le he dicho que yo no he venido aqui a registrar nada, los que han venido son ustedes, asi que... ¡Abra y mire!” Ni gañea ja... Eta etzuen iriki! Haik zerta etorri zien hauntza? Bildurre sartzea! [...] eta guk han boltsa hartan zer genduken ba? Bombas?” (Eranskina Ixabel 6:20-7:30 min. - 18:21-21:10 min.)

Urtez urte hazten zihoan Ikastola. Geroz eta matrikulatu gehiago zituzten eta ikasle hauek denak sartzeko lokal bat baino gehiago hartu behar izan zituzten. Hasieran erdialdean bakarrik zeuden lokalak, baina herriaren muturretan bizi ziren guraso batentzat baino gehiagorentzat nahikoa lan nekeza zen umeekin hara-hona ibiltzea. Hortaz, guraso hauen erosotasunean pentsatuz, herriaren bi muturretan ere lokalak jarri zituen Ikastolak umerik txikientzat.

Era guztietako umeak joaten ziren Ikastolara, familia euskaldunekoak nahiz erdaldunekoak. Izan ere, Ixabelek esan bezala, Ikastolaren sortzaile izan ziren gurasoak jende fidagarria ziren, konfiantzazkoa. Umeak gustura ateratzen ziren Ikastolatik, neskak eta mutilak elkarrekin nahastuta ibiltzen ziren, eguna jolasten pasatzen zuten, irakasleak ez zien jotzen... honez gain, beste eskoletan lau-bost urterekin has zitezkeen umeak Ikastolan hiru urterekin has zitezkeen eta, hau, etxetik kanpo lan egiten zuten guraso askorentzat, puntu inportantea izan zitekeen:

“- Garai hartan Ikastola jute zitzaizkizuen ikaslek ze izate zien danak abertzalek edo euskaltzale familitalok? Eo danetio?

- Danetio!

- Ta zeatio ustezu jendek nahi izantzola... ba, adibidez, Espaiñitio etorritako guraso batzuk zeatio nahiko zuen ean seme-alabak euskeraz ikastea?

- Ba, nik uste... hasi zien guraso hoiek konfiantza emantziela jendei, zeati zien gizon... “berdaderok” esaten dana. Eta haikin fiau eta nik uste.... Eske bestela eztakit! Eta gudan konfiantza re bai, neregán konfiantza haundie izan do jendek. Eztakit ondo o gaizki zer ein dean baiño... nik ahaleiñek in dittut!” (Eranskina Ixabel 23:03-23:57 min.)

Indartsu hasi zen, hortaz, Beasainen Ikastolaren mugimendua. Hala ere, aurreneko ikasketak euskaraz eginda ateratzen ziren ikasleen promozioek aurrera ere euskaraz ikasten jarraitzeko aukera izatea nahi zuen Ikastolak, lehen irakaskuntza ez ezik, bigarrena ere bere gain hartuz. Hori horrela, lokalak begiz jotzen hasi ziren lehenbizi. Kale Nagusian bazegoen EAJ alderdiak erabiltzeko egin zen Batzoki bat, frankismoak bederatzi egun

GOIERRIKO EUSKARAREN BILAKAERA XX. MENDEAREN ERDITIK GAUR ARTE

egiterako kendutakoa. Izan ere, diktadurak ekintza politikoetarako lokalak erabiltzea debekatu zuen, eta lokalak jabe izatea onartuko zuen, honen ordean helburu kulturaletarako erabiliko zela ziurtatzen bazen. Eraikina oso handia zen eta Ikastola izateko egokitzeko modukoa.

Horretarako, ordea, beharrezkoa zen Udalaren babesa. Eta honek ez zuen baiezkorik eman. Eskola nazionala omen zen lokal beharrean zegoena, eta ez Ikastola. Hortaz, planak aldatu eta abandonatuta zegoen Karmeliten eskola hartu zuten lokal gisa, bertan, Alkartasuna Lizeoa izenez, bigarren irakaskuntza ere euskara hutsez irakatsiko zuen Ikastola ezarriz:

“Aurrena Karmelitan hasiko giñen, nik ikasi non eskolan ya mojak aldeinda zeren eta hue hutsik zeon eta han hasi giñen” (Eranskina Ixabel 18:35-18:45 min.)

Honez gain, Ikastola aitzindaria izan zen Beasaingoa. Gaur egun hain ezagunak diren *Kilometroak* ikastolen-jaia ospatzen lehenak izan ziren 1977an eta, baita, 1967an eskola-udalekuak antolatzen ere:

“Ekarri zon idea hori Estados Unidosetio Erguinek. Han ere hola zerbait bultzatuta diru pixka bat atera nahi zuenen holako zerbait beak ikusita eta hure, eta pentxa, nolako arrakasta izan don! [...] ba bai! Gu jun giñen... ni famili guztikin, osea nire senarra ta nere umek eta Ikastolako umek. Eztakit zenbat andereño zien juntzienak, bi eo hiru [...] baiño oso ederki eontzien!” (Eranskina Ixabel 21:20-23:00 min.)

“Egun bat ezarri zen gurasoak bisitan joateko eta ikusi genuen nola gozatzen zuten haurrek. Itzulitakoan gorapamenak besterik ez ziren entzuten, haurrak bidaiatik erabat pozik itzuli baitziren” (Zufiaurre 2016: 121). Bide arrakastatsu honetatik iritsi zen Beasaingo Ikastola 1974-75 ikasturterako euskara hutsez ikasten zuten 700 ikasle izatera.

4.3.2. Alfabetatze ikastaroak eta hiztunen kontzientziaioa

“Eta nik eakutxi nien euskera (erdera?)... gui batxilleraton Istituto Peñaflozidan eakutxi ziguen frantsesa eta alemana zan ordun zeatio Franco nola zeon ingelera kendu intzon. Etziguten hitzeitten [...] nik eakutsi nien erdereia nei hizkuntza eakutxi zizkien bezela, hitzein be. Hiztegi guztie, laburpenak... este... itzulpenak... eta hori bai, baiño hitzeiñ ez. Eta hitzein gabe ezta ikasteik” (Eranskina Ixabel 4:28-5:43 min.)

Hizkuntzak irakasteko prestatu gabeko irakasleak zeuden Goierriin, euren garaian %100 gazteleraz ikasi zutenak. Eta euskaraz idazten eta irakurtzen ez zekiten irakasleek nekez erakutsiko zieten horretan ikasleei. Batzuk, Ixabel tarteko, euren kasa alfabetatu ziren nola hala:

- “- Zuk zeorrek esan dezu zuk dana erabat erderaz ikasi zendula. Ordun geo zuk umei euskeraz idazten eta irakurtzen eakutsi ahal izateko. Zeorrek e ikasi beharko zendun nunbaitt.
 - Nik asko irakurri det euskeraz
 - Eta zeorrek ikasi zendun zeorren kixa?
 - Bai! [...] ni euskaldun zar zeatu ninduen eta nei ez tie ezer eskau”
- (Eranskina Ixabel 29:05-31:00 min.)

Beste askok, ordea, horretan ikasteko ikastaroak izan zituzten. Izan ere, Goierriko alfabetatzearen lehen aztarnak Ordizian aurkitu dira, Elbira Zipitriak ezkutuan emandako alfabetatze ikastaro batean aritutako bi beneditar euskal-aditza irakasten aritu baitziren 1954. urtean. Hala ere, Goierriko alfabetatzearen mugimendua 60. hamarkadaren bueltan agertu zen indartsuen. Lazkaoko Aita Beneditarrak izan ziren bide honen aitzindaritzza hartu zutenak 62-63 ikasturtean herritar talde bati lehen aldiz ikastaro luze bat emanaz. 65ean bide beretik jarraitu zuen Beasainek. Dena den, ez zen gaur egungo zentzuko alfabetatzea, ikasle euskaldun nahiz erdaldunei batera erakusten baitzitzaien Euskal Gramatika, gazteleraz.

Modu honetan hasi zen Goierriin alfabetatzearen mugimendua sortzen, bereziki Lazkaon eta Beasainen. 1975. urterako gogoan hartzekoa zen bi herri hauetan alfabetatuen kopurua: Lazkaon 60 lagun, Beasainen 40. Lazkaon Beneditarren alfabetatzeak eta Ikastolak eragingo zuten hiztunen kontzientziazio hau, Beasainen, hasi berriak ziren Ikastolak eta gau-eskolak. (Sarriegi 1999: 56)

Bide honetatik antolatu zen 1975ean I. Udako Euskal Ikastaroa eta 77an Goierriko Euskal Eskola sortu, Goierriin alfabetatze-euskalduntzea koordinatuko zuen eskola. Hasierako pausu hauen gailurra eta 60ko hamarkadatik zetorren mugimendu eta lanaren fruitu izan zen gaur egun hain ezaguna den Maizpide euskaltegi-barnetegia (HABE). 1988ko apirilean zabaldu zituen ateak eskertzen nekeza den lana egin zuen Dionisio Amundarain itsasondoarraren zuzendaritzapean eta honela euskara berreskuratzeko langintzan Lazkaori ondo merezitako sona eta izen ona eman zizkion.

Oso urte politizatuak ziren hauek eta bere garaian euskara nahikoa galdutako hiztunak honen kontzientzia hartzen hasi ziren:


GOIERRIKO EUSKARAREN BILAKAERA XX. MENDEAREN ERDITIK GAUR ARTE

“Ni soldaduska jun aurretio ya gau-eskolan hasiko nitzen alfabetatzen. Ya ordun bazeolako kontzientzi politiko bat, hizkuntzarena bakarrik ez, baizik eta kontzientzia politiko bat. Eta gehiago da, nik soldauska Melillan egin nuen eta bagendun lagun bat, Igeldoko baserritar bat, euskeraz etzekiena eta Melillatik euskera eginez bidali genun. Eta nik banittun Arregiren alfabetatze liburuak, Melillan e, 21 urtekin-22 urtekin soldaduska egiten da eta nik han nittun eta, bueno, gure musika guztia, noski, euskeraz zen, Pantxoa eta Peio, susto earrak pasatu nittun horreatio [...] eta guk geon arten, han bai, euskeraz egiten genuen, euskaldunon nolabaiteko identidade hori indartu ezkeo, baiño orduako karo, euskararen kontzientzia ya hartua genun aurretio. Pentsa oso urte politizatuak bizi izan genittuela” (Eranskina Zeles 10:50-12:15 min.)

4.4. Azken urteetako egoera


EUSTATen azken datuen arabera, euskararen ezagutzak ez du gehiegi aurrera egin azken hamarkada hauetan:

14. Grafikoa. Goierriko hiztunen euskara-gaitasunaren bilakaera, 1986-2011




Izan ere, nahiz urtetik urtera D ereduak ikasle gehiago izan eta gaur egun Goierri eskaintzen den irakaskuntzaren ia %100a eredu honetan izan, nahikoa finkatuta zegoen duela hamarkada batzuetarako ere Ikastolei esker:

12. Grafikoa. Goierriko hezkuntza ereduaren bilakaera, 1986-2011




Ezagutzak ez dakar erabilera, ordea. Eta hori gertatzen da Goierriin ere. Badago inor konturatu gabe aurrera egiten uzten ez duen arazoren bat. Eta 2011. urtean euskaldunek eta ia-euskaldunek biztanleriaren hiru laurden baino gehiago bete arren, kale erabilera ez da %35ekoa (Soziolinguistika klusterra 2001) izatera ere iristen (13. grafikoa), ezta euskaraz dakiten familia guztien etxeko hizkuntza ere. Biztanleriaren %60 euskalduna dela kontuan hartuta (kasu honetan ia-euskaldunak taldean sartu gabe), etxeko elkarrizketen %34a baino ez baita euskara hutsez izaten, dakitenen erdia baino ez (65. grafikoa). Euskarak behin galdu zuen etxeko esparrua oraindik ere berreskuratu ez duen seinale:

13. Grafikoa. Goierriko hiztunen euskara-gaitasuna, 2011



Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikak

65. Grafikoa. Goierriko hiztunen etxeko hizkuntza, 2011



Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikak

Elkarrizketatuetako batek ere garbi azaldu zuen nolakoa ikusten zuen Goierriko euskararen gaur egungo egoera:

“Baiño, bai, gaur egun ya beste era batea ikusten da, sozialki beste prestigio bat daukela, baiño, tamalez, ikusten detena da Ikastola arloan eta akademikoki asko indartu dala eta jendeak ikasi egiten duela, baiño erabilpena kalean... tristea dela, hori ez dela hain aberatsa. Jendeak ikasten du prestigio ona duelako umeez ba euskeraz hezitzea ez? Ikastea. Gero, gaiña, behar dutelako hainbat lanetarako, lan-tresna bezela ikusten delako,

GOIERRIKO EUSKARAREN BILAKAERA XX. MENDEAREN ERDITIK GAUR ARTE

kulturako parte bat bezela ikusten dalako, baiño kalen ez da hainbeste garatu” (Eranskina Zeles 13:05-14:00 min.)

Ezagutza datu hauek erabilera ziurta dezaten ahalegina egiteko hainbat talde sortu dira azkenotan Goierriin. Horien artean 1993ko *Kilometroen* ondoren, Ordizian sortutako *Hitzaro* elkarteak dugu ezagunenetako bat. Elkarre honek euskararen normalkuntzaren alde lan egiten du eta, bereziki gazteen artean, euskararen erabilera ezagutza datuetatik hain urrun ez egotea lortu nahi du. Horretarako, liburu azokak, mintzalagun taldeak, dantza ikastaroak, umeei zuzendutako udalekuak... antolatzen dituzte.

Bide honetatik hasi dira hainbat enpresa handi ere hizkuntza politikak onartu eta industriari euskara pixkana sartzen, euskaraz ikasitako ikasleek ez dezaten lan-mundu ia erabat erdaldun bat topatu. 2006. urtean CAF enpresa sonatua izan zen honetarako saltoa eman zuena. Pausu bat aurrerago joanez, 2011. urtean sortu zen *Ingudea* (Goierriko lantegien Euskara Batzordea) taldea, Ampo, CAF, Ederfil-Becker, Eredu, Hertell, Irizar eta Orkli enpresen artean egindako akordio baten ondoren.

5. ONDORIOAK

Duela mende erdi bat izugarri erdaldundu zen eskualde bat berriz ere euskalduntzeko gauza izan dira goierritarrak. Hori lortu ahal izateko lan asko egin behar izan dutenekin egin dugu topo bidean eta hauei gure eskerri beroenak eskaintzea besterik ez zaigu geratzen. Ezagutu eta bultzatu lehen baino askoz gehiago egiten da, ez ordea, erabili, azken urteetako atzerakadaren karga oraindik bizkar gainean balego moduan.

Goierrikan kanpotik berez dena baino euskaldunagoa dirudi, baina usteak erdia ustel. Ez gaitezen azkarregi lasaitu. Euskarari dagokionez, bide asko baitago oraindik egiteko:

“- Zuk ikustezu diferentziak... diferentzi haundie zure garaitio oaingo Beasaña?
- Buuuuf! Eztao esateik e!
- Baiño oaindio re lan pixkat badau itteko ala?
- Ba bai. Pena ematen do. Badakizu eskolako umek diela eta erderaz ean arten [...] oaindio tiraizo bat [...] guk ahaleñek eiñ dittu. Baiño aleifñetea re in behar izaten do” (Eranskina Ixabel 36:35-37:15 min.)

Gaurko euskaldunok gure aurrekoek hasitako borrokarekin eta biziraupen gogoarekin aurrera egiteko gauza izango al gara? Ala besterik gabe, bide errazari heldu eta aurretik egindako lan guztia bazter batean utziko dugu? Ez ditzagun errealitatearen aurrean begiak itxi: hizkuntza bat maite dugula esatea baino garrantzitsuagoa da hau erabiliz gozatzea; baina abesti ezagun batek dioen bezala, esaten dugun adina maite badugu, gutxienez, zain dezagun maite dugun hori. Euskarak hiztun gehiago eta maitale gutxiago behar baititu. Gure esku dago altxor handi honen biziraupena ziurtatzea eta aurrekoek egindako ahaleginarekin jarraitzea.

“Eta nere pozik haundiña, bueno, badie beste gauza batzuk baiño irakaskuntza mundun, [...] atarira atera eta umek euskeraz Beasingo plazan, euskeraz abesten, jolasten, hitzegiten... nere bizitzako unerik... pozgarrietakoa! Zeati Beasingo plazan etzan entzuten...” (Eranskina Ixabel 23:57-25:25 min.)

Hortaz, lehengo euskaldunek ekina gaurkoek egin izango al da? Ikastolako aurreneko andereñoaren pozik handienarekin jarraitzeko gauza izango al dira goierritarrak? Denborak eta gaurko euskaldunen borondateak esan dezatela.

6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Ahotsak.com
- ANAUT, D. (2013). *Euskararen kate hautsiak*. Andoain: Aise Liburuak S.A.
- ETXABE, K. eta GARMENDIA, L. (2003). *Zaldibiako euskara*. Zaldibia: Zaldibiako Udala.
- EUSTAT
- IZAGIRRE, K. (2010). *Autopsiarako frogak*. Zarautz: Susa.
- RODRIGUEZ, F. (1996). *Ikastolak eta euskal eskolak*. Egin.
- SANCHEZ CARRIÓN “TXEPETX” (1991). *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría de las Lenguas*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- SARRIEGI, A. (1999). *Alfabetatzearen hastapenak Goierriin, aurreaioak eta lan 1967tik 1975erakoak*. Lazkao: Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte.
- _____ (1989). *Euskara Beasainen. Azterketa soziolinguistikoaren laburpena - 1981 eta 1986ko Zentsu-Errolden eta 1988ko neurketen arabera*. Beasain: Siadeco eta Udaleko Euskara-Zerbitzua.

GOIERRIKO EUSKARAREN BILAKAERA
XX. MENDEAREN ERDITIK GAUR ARTE

- Soziolinguistika klusterra
- TORREALDAI, J. M. (1998). *El libro negro del euskera*. Donostia: Tarttalo.
- ZUAZO, K. (1998). "Euskalkiak, gaur". *Fontes Linguae Vasconum (FLV)*, 78.
- _____ (2003). *Euskalkiak, Herriaren lekukoak*. Donostia: Elkarlanean S.L.
- ZUFIAURRE, J. (2015). *Irakaskuntza Beasainen*. Beasain: Beasaingo Paperak 23 zkia.
- <http://www.vallenajerilla.com/glosas/gramatica.htm> [2016/04/19]
- <http://www.forociudad.com/guipezcoa/beasain/mensaje-11459560.html>
[2016/08/08]

7. ERANSKINAK

Lanarekin batera entregatuko dudan CD batean gehituko ditut egindako grabaketak.